

# EUSKADIKO ORKESTRA 21-22



# Ben Lioz + Beethoven

MARTXOA 15 MARZO

**19:30**

PAMPLONA / IRUÑA  
Auditorio BALUARTE Auditoriuma

[euskadikoorkestra.eus](http://euskadikoorkestra.eus)

# EUSKADIKO ORKESTRA

Zuzendari Titularra / Director Titular  
**ROBERT TREVIÑO**

Musikariak / Las/os músicas/os

## KONTZERTINOA CONCERTINO

Jordi Rodríguez Cayuelas

## I BIOLINAK / VIOLINES I

Waldemar Machmar (1)  
Xabier de Felipe (3)  
José Ignacio Aizpiri  
Inmaculada Aramburo  
Laura Balboa  
Irene Echeveste  
Marie Gaillard  
Alexandre Kozouline  
Oscar López  
Maite Menéndez  
Larraitz Oartzabal  
Ortzi Oihartzabal  
Itziar Prieto  
Maialen Rezabal  
Cristina Vértiz

## II BIOLINAK / VIOLINES II

Raquel Cortinas (2)  
Xabier Gil (2)  
Mikel Ibañez (3)  
Amaia Asurmendi  
Nathalie Dabadie  
Virgile Demillac  
Ludwik Hamela  
Anne-Marie Harmat  
Antoni Kosc  
Luxi Lavielle (4)  
Kamran Omarli  
Ricardo Ruiz  
Igor Torre

## BIOLAK / VIOLAS

Delphine Dupuy (2)  
Pawel Krymer (2)  
Monika Mazur (3)  
Pascal Arnaud  
Helline Boulet (4)  
Natacha Dupuy-Scordamaglia  
Justyna Janiak-Krymer  
Arkaitz Martínez  
Sergio Montero  
Yann Seyrac

## BIOLONTXELOAK VIOLONCHELOS

Juan Ignacio Emme (2)  
Gabriel Mesado (2)  
Flore Lefevre (3)  
Natalia Díaz  
Jacek Grabe-Zaremba  
Jon Larraz  
Beatriz Linares  
Tetiana Mertelova (4)  
Pascalle Michaud  
Ian Swedlund

## KONTRABAXUAK CONTRABAJOS

Arkadiusz Maciejski (2)  
Paloma Torrado (2)  
Guangyao Zhao (3)  
Victor Bogdanov  
Noelia Grau (4)  
Mehmet Sönmez  
Pierre Torrent

## FLAUTAK / FLAUTAS

Hélène Billard-Alirol (2)  
Bruno Claverie (2)  
Ander Erburu  
Oihana Kontxeso

## OBOEAK / OBOES

Silvia Esain (2) (4)  
Hervé Michaud (2)  
Rafael Alonso  
Pascal Laffont

## KLARINETEAK / CLARINETES

Luis Cámara (2)  
Juan Navarro (2)  
Stéphane Langlois  
Sara Zufiaurre

## FAGOTAK / FAGOTES

Marco Caratto (2)  
François Proud (2)  
Yuan Dai  
Anne Charlotte Lacroix

## TRONPAK / TROMPAS

Jean-Luc Casteret (2)  
Cristian Palau (2)  
Adrián García Carballo  
Marcos Garrido (4)  
Xabier Sarasa  
Salvador Tudela

## TRONPETAK / TROMPETAS

Didier Bousquet (2)  
Miguel Echepare (2)  
Jesús Castillo  
Iker Urreta (4)

## TRONBOIAK / TROMBONES

Arnaud Mandoche (2)  
Christophe Sánchez (2)  
Javier Almarza  
Daniel Ruibal (4)

## TUBA

Oscar Abella (2)

## TINBALAK ETA PERKUSIOA TIMBALES Y PERCUSIÓN

Anthony Lafargue (2)  
Héctor Marqués (2)  
Igor Arostegi  
Xabier Peña

## HARPA / ARPA

Iván Bragado (2)

- (1) Kontzertinoaren laguntzailea / Ayuda de concertino
- (2) Bakarlarria / Solista
- (3) Lehen tuttia / Primer tutti
- (4) Aldi baterako kontratazioa / Contratación temporal

**15** MARTXOA  
MARZO

**Ber  
lioz** +  
**Beethoven**



**Pinchas Steinberg**  
Zuzendaria ° Director

## EGITARUA ^ PROGRAMA

I

### **LUDWIG VAN BEETHOVEN** (1770-1827)

**Sinfonía nº8 en fa mayor, Op.93** [26']

- I. Allegro vivace e con brio
- II. Allegretto scherzando
- III. Tempo di menuetto
- IV. Allegro vivace

II

### **HECTOR BERLIOZ** (1803-1869)

**Sinfonía fantástica: Episodio de la vida de un artista, en cinco partes, Op.14** [49']

- I. Sueños, Pasiones
- II. Un baile
- III. Escena en los campos
- IV. Marcha al cadalso
- V. Sueño de una noche de sabbat

**J**ascha Heifetzen biolin-ikaslea izan eta Boris Blacherrekin konposizioa ikasi ondoren, **Pinchas Steinberg**ek bi bideak –praktikoa eta teorikoa– uzartu zituen orkestra-zuzendaritzaren eremuan, eta azken hamarkadetako maisu errespetatu eta balioaniztunenetako bat da. Opera-zirkuituko erreferentziako zuzendari bat da eta, bestea beste, Londresko Covent Gardenen, Milango La Scalán, Parisko Operan eta Vienako Staatsoperren lan egin du –azken horrekin lotura luzea du-. Gainera, lehen Erromantizismoko erreperitorio sinfonikoko espezialista handia da eta hori izango da, hain zuzen ere, gaur, gure orkestrarekin batera jorratuko duena.

**Zortzigarren sinfonia** 1812ko urrian amaitu zuen **Beethoven**ek, harentzat oso gogorra izan zen garai batean. Ezbeharrak bata bestearen atzetik etorri zitzaizkion. Bere «maite hilezko» Antonie Brentanok utzi egin zuen; Nikolaus anaiarekiko harremana modu bortitzean amaitu zuen, hura zerbitzari batekin ezkondu zelako. Gainera, osasuna ahulduta zuen –ziurrenik aurreko disgustuengatik–, erabat gor geratzen ari zen eta hori zela-eta, pianojole izateari utzi behar izan zion urtebete lehenago. Oso atsekabetuta zegoen, eta bere buruaz beste egitea ere pentsatu zuen. Baina egoera hain negatibo horretatik *Zortzigarren sinfonia* sortu zen, monumentu garaile bat izango balitz bezala. Askoren iritziz, bere ziklo sinfonikoko optimistena, alai eta are bromazaleena ere bada. «Umöre onaren sinfonia» esan zion Krug-ek. Grove-k, bestalde, poz hartzen zuen «bizitzaren aldi luze eta zail baten ondoren, [Beethovenek] *Zortzigarren sinfonia*n agertzen dena bezalako hain une adeitsu, inuzente eta alaitu batez gozatzeko aukera izan zuelako».

*Zortzigarren sinfonia* divertimento zoragarri bat da, ateraldiz betea, eta keinu asko egiten dizkie Haydn eta forma zaharrei. Hirugarren mugimendurako, minueta berreskuratu zuen. Minueta XVIII. mendeko dantza bat da eta, horren orde, horren bilakaera den *scherzo* erabili zuen –nabarmen azkarragoa– *Bigarren sinfoniaz* geroztik. Are esanguratsuagoa da, baina, mugimendu motel tradizionala kendu eta horren orde *allegretto* –benetan originala– erabiltzea, aparatua mekaniko berri batek, hots, kronometroak inspiratuta. Hilabete batzuk lehenago erakutsi zion Johann Nepomuk Mälzel asmatzaileak. Haize-instrumentuen *staccato*ek metronomo famatuaren aitzindari zuzena den aparatua horren zorrotasun eritmikoa marrazten dute.

Ez dira sinfoniako umöre-elementu bakarrak. Lehen mugimendua Beethovenen joera ludikoaren adibide onena da: 3/4ko konpas orokorraren eta 2/4koaren arteko kulunka; obsesiboki, kiribil buxatu baten moduan, errepikatzen diren kadentziak; eta espero gabeko mozketaren bat, itxaropen formal faltsuak sortzen dituena. Eta *finale*a, itxuraz garrantzirik gabeko gai batekin hasten bada ere, gero eta sofistikatuagoa dena: laburbilketa faltsua –Haydnen estiloan–, garapen-sekzioa hasi bezain pronto; do sostenitu bitxi bat, tokiz kanpo dagoela ematen duena –luze idatzi da horri buruz–; eta, gainera, amaiera burrunbatsua, fa maiorreko hogeita hiru konpas errepikaturekin. Horiek denak ditu ezaugarri Beethovenen sinfonia «tradizionaletatik» azkenak –eta askorentzat perfektuenak–, *Bederatzigarren sinfonia* iraultzailea iritsi aurretik.

1827an, *Sinfonia Fantastikoa*ren istorioa hasi zen urtean, **Hector Berlioz**ek oraindik ez zuen lortu bere lan garrantzitsurik estreinatzea. Rhône-Alpeetako eskualdeko herri txiki batean jaioa, 1821ean iritsi zen Parisera Berlioz –Juan Crisostomo Arriaga ere ia aldi berean iritsi zen–, medikuntza ikastera; musika-prestakuntza berantiarra eta irregularra izan zuen. Baina,

«hiri barbaroarekin» –horrela esaten zion Berliozek Parisi– liluratuta, laster ahaztu zuen medikuntza, eta musika–ibilbideari ekin zion. Zaputza egin zitzaion, baina, agian izaera benetan zaila zuelako. Arazoak ekarri zizkion horrek bizitza guztian; izan ere, ohiz kanpoko adimena eta kultura zituen, baina nortasun kartsua eta manera zakarrak edukazio txartzat jotzen ziren maiz.

1827an, bada, antzerki–konpainia irlandar bat aldi baterako zegoen Parisen, Odeon antzokian Shakespeareren *Hamlet* ingelesez antzezten, eta Berlioz emanaldietako bat ikustera joan zen. Harriet Smithson aktore gazteak jokatzeko Ofeliaren rola. Konpositorea txundituta gelditu zen haren edertasunarekin, keinuekin eta agertoki gaineko presentziarekin, nekez ulertzen baitzituen haren ahotik ateratzen ziren ingeleseko hitzak. Zeharo maitemindu zen harekin, eta amodio–gutun ugari bidali zizkion. Erantzunik ez zuen jaso, ordea.

Orduan, haren arretra erakartzeko plan bat asmatu zuen: obra garrantzitsu bat konposatu zuen eta ospea lortuko zuen, eta gizon nabarmena bilakatuko zuen aktorea berarekin ohar zedin. Horrela, bere poltsikotik ordainduta, ia oihartzunik izan ez zuten bi obra estreinatzea lortu zuen. Baina, ospea lortzeko ahaleginetan ari zela, aktoreari gutunak bidali eta bidali jarraitu zuen. Hain larria zen egoera, aktoreak neskameari eskatu baitzion Berliozek igorritako gutun guztiak botatzeko.

Lur jota utzi zuen konpositorea gaitzespen horrek: bat–bateko umore–aldaketak zituen eta, Smithson burutik kendu ezinik, Pariseko kaleetan noraezean ibiltzen zen ametsetan. Horiek horrela, emakumea bereganatzeko azken saio bat egin zuen, eta Smithsonnek parte hartzen zuen antzerki–emanaldiaren aurre–aurretik bere obertura bat interpretatzea lortu zuen. Aktoreak ez zuen interesik agertu, baina. Bere onetik aterata, harmailatik garrasi egiten hasi zitzaion, eta Smithsonnek, ikaratuta, zoro horrengandik alden zezatela eskatu zuen.

Esperientzia, pasio eta amodio–etsipen horiek partitura ia autobiografiko batean islatu zituen Berliozek. 1830ean amaitu zuen, eta terapia modura balio izan zion. Aurreko obretako material asko aprobetxatu bazuen ere, *idée fixe* (ideia finko) izendatu zuen teknika asmatu zuen eta, horren bidez, batasuna eman zien. Ideia finkoa, bada, melodia bat da, *leitmotivaren* aitzindaria, behin eta berriro bueltatzen da sinfonietan zehar, eta berak –edo obraren artista protagonistak– Smithsoni dion maitasuna islatzen du. *Maitearen motiboan*, Berliozen beraren hitzetan, artistak «pasioaren nolabaiteko ezaugarri bat antzematen du, baina bere maitasunaren xedearren noblezia eta herabetasunarekin». Mugimenduen aurrera egin ahala, motiboa bere fisonomia aldatuko du eta ñabardura psikologiko ezberdinak hartuko ditu, pertsonaia protagonistaren sentimenduak nola eraldatzen diren.

*Idée fixe*tik harago, Berliozek konposizio–baliabide berri asko garatu behar izan zituen monumentu sinfoniko handi hau, Sinfonia fantastikoa, altxatzeko. Obra iraultzailea da, eta ez du musika–aurrekari zuzenik ez bere funts estetikoan, ez funts formalean. Unera arte oso gutxi erabili ziren instrumentu–baliabideak baliatu zituen Berliozek; esaterako, hari–instrumentuetan, arkuaren egurrekin hariak kolpatzea (*col legno battuto*), azken mugimenduan; espazio akustikoa handitzea eszenatik kanpo dagoen oboearekin, hirugarren mugimenduan; eta, oro har, orkestra eta orkestrazioa ulertzeko modu zeharo berri bat, Beethoven oinarri hartuta baina hura aise gaingiduta zenbait alderditan. Horiek guztiek maisulan bihurtu dute *Sinfonia Fantastikoa* estreinatu zen unetik bertatik. Garaiko beste egile askorentzako erreferentzia bilakatu zen laster eta, denboraren poderioz, erromantizismoaren muinaren sorkarietako bat. Berliozek ondo baino hobeto irudikatu zituen bere biografian erromantizismoaren ideia berriak, tartean artista indibidual eta jenialarena.

Azken ohar bat: azkenean lortu zuen Berliozek Smithson konkistatzea. 1833an ezkondu ziren eta haur bat ere izan zuten, baina erlazio gatazkatsua izan zuten, eta zazpi urte geroago banandu egin ziren.

Tras ser alumno de violín de Jascha Heifetz y estudiar composición con Boris Blacher, **Pinchas Steinberg** decidió reunir ambas sendas —la práctica y la teórica— en el terreno de la dirección de orquesta, convirtiéndose en uno de los maestros más respetados y versátiles de las últimas décadas. Steinberg es un director de referencia del circuito operístico y ha trabajado en coliseos como el Covent Garden de Londres, La Scala de Milán, la Ópera de París o la Staatsoper de Viena, con la que tiene una larga vinculación. Pero es además un gran especialista en el repertorio sinfónico del primer Romanticismo y ese será, precisamente, el repertorio que abordará hoy con nuestra Orquesta.

Finalizada en octubre de 1812, la **Sinfonía nº8** fue escrita durante un período muy duro para **Beethoven**. En una sucesión trágica se encadenaron el abandono de su "Amada Inmortal", Antonie Brentano; la ruptura violenta con su hermano Nikolaus por su matrimonio con una sirvienta; y una salud resentida —probablemente por los anteriores disgustos— que se sumó a los estadios finales de una sordera que le había obligado a abandonar su carrera como pianista un año antes. Tan desesperado estaba Beethoven que llegó a barajar la idea del suicidio. Pero de este trasfondo tan negativo habría de surgir, como un monumento triunfante, la *Octava sinfonía*, considerada por todos como la más optimista, feliz e incluso bromista de su ciclo sinfónico. "La sinfonía del buen humor" la llamaría Krug, mientras que Grove se alegraba de que "al final de un largo y difícil período de vida, [Beethoven] se concediera gozar de un momento tan cordial, inocente y jubiloso como el que aparece en la *Octava*."

La *Sinfonía nº8* es un maravilloso divertimento repleto de humoradas y guiños a Haydn y a las formas antiguas. En ella recupera el minué para el tercer movimiento, una danza dieciochesca que desde la *Segunda sinfonía* Beethoven había venido sustituyendo por la evolución de aquel, el *scherzo*, considerablemente más rápido. Pero aún más significativo es que destierre de la obra el tradicional movimiento lento, sustituido por un *Allegretto* ciertamente original, inspirado por un nuevo ingenio mecánico, el cronómetro, que le había mostrado unos meses antes el inventor Johann Nepomuk Mälzel. Los *staccati* de los instrumentos de viento dibujan la incisividad rítmica de este aparato, precursor directo del famoso metrónomo.

No son los únicos elementos de humor de la sinfonía. El primer movimiento —con sus balanceos entre el pulso general de 3/4 y el de 2/4, sus cadencias que se repiten obsesivamente, a la manera de un bucle atascado, o algún corte inesperado que crea falsas expectativas formales— es el mejor ejemplo de la inclinación lúdica de Beethoven. Y el *finale*, que arranca con un tema aparentemente intrascendente, crece progresivamente en sofisticación: su falsa recapitulación, al estilo de Haydn, nada más comenzar la sección de desarrollo; un extraño do sostenido que suena fuera de lugar y sobre el que han corrido ríos de tinta; además de un final rimbombante, con veintitrés compases repetidos de fa mayor, coronan la última —y para muchos la más perfecta— de las sinfonías "tradicionales" de Beethoven, antes del paso revolucionario que supuso la *Novena*.

En 1827, año en que comienza la historia de la **Sinfonía Fantástica**, **Hector Berlioz** aún no había logrado que le estrenaran ninguna obra importante. Procedente de un pequeño pueblo de la región del Ródano-Alpes, Berlioz había llegado a París en 1821, casi al mismo tiempo en que lo hizo Juan Crisóstomo Arriaga, con la intención de estudiar medicina, pues su formación musical había sido tardía e irregular. Pero el embrujo de la "ciudad bárbara", como Berlioz llamaba a París, le hizo olvidarse pronto de la medicina para perseguir una carrera musical que, sin embargo, se le hizo esquiva. Quizá fuese debido a su carácter francamente difícil, que le trajo problemas durante toda su vida: poseía una inteligencia y cultura extraordinarias, pero su personalidad arrolladora y sus maneras toscas a menudo se confundían con la mala educación.

Como adelantábamos, en 1827 Berlioz se coló en el Teatro Odeón para ver una representación en inglés de *Hamlet* de Shakespeare, por una compañía teatral irlandesa instalada temporalmente en París. El papel de Ofelia lo interpretaba Harriet Smithson, una joven actriz que fascinó al compositor por su belleza, su gestualidad y su presencia sobre el escenario, ya que apenas podía entender las palabras inglesas que salían de su boca. Quedó perdidamente enamorado de ella y comenzó a mandarle numerosas cartas de amor, que quedaron siempre sin respuesta.

Fue entonces cuando Berlioz ideó un plan para llamar su atención: componer una gran obra y alcanzar la fama, convertirse en un hombre destacado para que la actriz se fijase en él. Consiguió así estrenar, pagándolas de su bolsillo, dos obras que apenas tuvieron repercusión. Pero mientras se afanaba en alcanzar la celebridad, siguió acosando a la actriz con cartas, hasta el punto de que esta pidió a su criada que desechara cualquier correspondencia que tuviera a Berlioz como remitente.

El rechazo comenzó a afectar seriamente al compositor. Tenía cambios de humor repentinos y, sin poder quitarse a Smithson de la cabeza, vagabundaba fantaseando por las calles de París. En estas condiciones, hizo un último intento por conquistarla: logró que interpretaran una obertura suya justo antes de una función teatral en la que participaba Smithson. Pero aun así la actriz no mostró interés. Desquiciado, durante la representación Berlioz comenzó a gritarle desde la grada, Smithson se asustó y pidió que alejaran de ella a aquel loco.

Estas experiencias, sus pasiones y desilusiones amorosas, Berlioz decidió volcarlas en una partitura prácticamente autobiográfica que finalizó en 1830 y que le sirvió casi a modo de terapia. Aunque aprovechó mucho material de obras anteriores, Berlioz tuvo la feliz idea de darles unidad mediante la invención de una técnica que denominaría *idée fixe* (idea fija): una melodía, precursora del *leitmotiv*, que vuelve una y otra vez a lo largo de las sinfonías y que refleja su amor –o el del artista protagonista de la obra–, por Smithson. Es el *Tema de la amada*, en el que, según palabras de Berlioz, el artista “encuentra la cualidad de la pasión, pero con la nobleza y timidez con el que da crédito el objeto de su amor”. Este tema irá mutando su fisonomía y adquiriendo matices psicológicos diferentes en el transcurso de los diferentes movimientos, en función de cómo se irán transformando los sentimientos del personaje protagonista.

Más allá de la *idée fixe*, Berlioz necesitó desarrollar toda una serie de recursos compositivos nuevos para poder levantar este gran monumento sinfónico que es la *Sinfonía Fantástica*, una obra revolucionaria sin precedentes musicales directos en su esencia estética ni formal. Berlioz puso en juego recursos instrumentales muy poco explotados hasta el momento, como el *col legno battuto* –golpear las cuerdas con la madera del arco– en los instrumentos de cuerda en el último movimiento, la ampliación del espacio acústico con el oboe fuera de escena en el tercero, y, en general, con toda una nueva forma de entender la orquesta y la orquestación, partiendo de Beethoven pero superándolo ampliamente en algunos aspectos. Todos estos hallazgos hicieron de la *Sinfonía Fantástica* una obra maestra desde el momento mismo de su estreno, convirtiéndose pronto en referencia para muchos otros autores de la época y, con el paso del tiempo, en una de las creaciones que quintaesencia el Romanticismo, cuyas nuevas ideas, entre ellas la del artista individual y genial, tan bien encarnó Berlioz en su propia biografía.

Una última nota: al final Berlioz logró conquistar a Smithson. Se casaron en 1833 y esta le dio un hijo, pero lo tormentoso de la relación terminó por separarles siete años más tarde.

Mikel Chamizo

**HURRENGO ABONU  
KONTZERTUA**  
PRÓXIMO CONCIERTO  
DE ABONO

**MARTXOA 29 MARZO**  
**19:30**

**Brahms**  
**Requiem**



**SARRERAK / ENTRADAS**

**10€ < 35€**

- euskadikoorkestra.eus
- baluarte.com
- Taquilla Baluarte leihatila

**AZKEN  
ORDU  
GAZTEAI  
10€**

EUSKADIKO  
ORKESTRA

21-22



Brahms  
Fest



Tchaikovsky



Shostakovich



Beethoven



Bernstein



Berlioz



Brahms  
Requiem



Dvorak



Mahler



Dutilleul



Eisler



SARRERAK  
ENTRADAS

10€ > 35€

AZKEN  
ORDU  
GAZTEA!

euskadikoorkestra.eus